

## 1. JARDUERA: IKASTOLAKO ATARIA

### Jarduera honen bidez lan ditzakegun edukiak:

- 1. arloa. **Norberaren ezagutza eta autonomia pertsonala:** 1. blokea.
- 2. arloa. **Inguruaren ezagutza:** 3. blokea.
- 3. arloa. **Hizkuntzak. Komunikazioa eta adierazpena:** 1. eta 2. blokeak.

### Behariko dugun materiala:

*Ikastolako ataria ipuina.*


*Ikastolako ataria posterra.*

### Hezitzailearentzako oharrak:

Posterreko ilustrazioak erabiliz, hobeto erakarriko duzu neska-mutilen arreta, eta horrela errazago ulertuko dute istorioa.

### Garapena:

- Irakurri ipuina, ilustrazioez lagunduta.
- Egiaztatu neska-mutil guztiek ulertu dutela ipuinaren edukia.
- Oso modu xumean, hausnartu ipuinaren mezuaren inguruan, honelako galderak eginez:
  - Zeinek esan du motxilatik ateratzen dutenean oso triste jartzen dela? Zergatik jartzen da triste?
  - Zer esan dio sandwichak Fonori? Haurrek partekatzen al dute sandwicha jolas-orduan?
  - Ze hamaiketako da haurrek partekatu nahi izaten ez dutena? Zergatik?
  - Ikastetxe horretako neska-mutilek partekatzen al dute gustatzen zaiena?
  - Nahi ez duguna edo gustatzen ez zaiguna partekatzea eskuzabala izatea al da?
  - Zer dio paretan idatzi zuten mezuak? Zer da eskuzabala izatea?



## 2. JARDUERA: PARTEKA DEZAGUN

### Jarduera honen bidez lan ditzakegun edukiak:

- 1. arloa. **Norberaren ezagutza eta autonomia pertsonala:** 1. blokea.
- 2. arloa. **Inguruaren ezagutza:** 3. blokea.
- 3. arloa. **Hizkuntzak. Komunikazioa eta adierazpena:** 1 eta 3. blokeak.

### Beharke dugun materiala:

Folioak eta margoak.

### Hezitzailearentzako oharrak:


Jarduera honen bidez, sendotu egingo dituzue ipuinaren mezua eta aurreko jardueran landutako edukia.

### Garapena:

Hartu ipuinaren bukaerako mezua, irakurri ozen, eta, ahal izanez gero, neska-mutilek ulertu eta buruz ikas dezatela:

**Eskuzabala izatea ez da gustatzen ez zaiguna edo nahi ez duguna ematea, baizik eta besteengan pentsatzea eta daukaguna partekatzea.**

- Elkarrekin, hausnartu, bakoitzak zer partekatu duen:
  - Pentsa dezatela zer partekatu duten.
  - Haur bakoitzak bere esperientzia konta dezala: zer partekatu zuen eta norekin partekatu zuen.
- Eskatu neska-mutilei marrazki baten bidez adierazteko hori.
- Bukatzeko, presta ezazue mural bat, esaldi hau daramana: **“Eskuzabala izatea besteengan pentsatzea eta daukaguna partekatzea da”**. Esaldiaren azpian, neska-mutilek egindako marrazkiak zintzilikatu, lagungarriak izango baitira ipuinaren mezuak indartzeko.



## IKASTOLAKO ATARIA

### IPUINA

Kaixo, lagunok.

Nik Fono dut izena

eta hona etorri naiz

eskuzabaltasuna zer den ikertzera.

Eskuzabalak al zarete?

Partekatzen al duzue daukazuena?

Ikastetxeko atarira etorri naiz,

zer egiten duzuen ikustera.

-“Egun on, Platano jauna.

Zer moduz zaude?

Partekatzen al zaituzte umeez?

Nola tratatzen zaituzte?”

-“Ni oso pozik egoten naiz

motxilaren barruan,

baina oso triste jartzen naiz

ateratzen nautenean jolas-orduan”.

Ikusten nautenean, esaten dute:

“Kaka zaharra! Berrero fruta al dago?

Nahi baduzu, hartu zuretzat,

nik behintzat ez dut jango!”

-“Norbaitek etxean ahazten duenean

bere hamaiketakoa,

besteek ematen al diote

daukatenaren zatitxo bat?”

### (Sandwichak erantzuten du):

-“Bigun-biguna naizenez,

eta banatzen erraza,

batzuetan partekatu egiten naute

eta hori oso ederra da.”

-“Tartean daukadana gustatzen bazaie,

ziztu bizian jaten naute,

baina, gustatzen ez bazaie,

partekatu egiten naute.”

### (Palmeraren iritzia):

-“Nire esperientzia, ordea,

oso polita da:

atarian ikusten nautenean,


denak hurbiltzen dira nigana.”

-“Ekartzen nautenak poz-pozik

aritzen dira nire txokolatea jaten,

eta besteek zatitxo bat eskatu arren

ez naute sekula partekatzen.”



# IPUINA

## **(Fono mintzo da):**

-“Ume hauek ez dakite  
eskuzabala izatea zer den;  
jan nahi ez dutena partekatzen  
dute,  
eta gustatzen ez zaiena batere.”

-“Zuen laguntza behar dut,  
paretan gauza bat jartzeko”.  
Eta margoen bila joan ziren,  
mezu bat prestatzeko.

Hauxe idatzi zuten  
ikastolako atarian,  
hizki handi-handiekin,  
ondo ikusteko baita urrutian:

**Eskuzabala izatea ez da  
gustatzen ez zaiguna  
edo nahi ez duguna ematea,  
baizik eta besteengan pentsatzea  
eta daukaguna partekatzea.**

